

Aurkibidea.

- **MEMORIA**

1. Sarrera

2. Egitasmoaren helburua

3. Herribideak identifikatzeko oinarriak

4. Definizioak eta aurrekari juridikoak.

5. Inbentarioaren erabilerak.

6. Metodologia eta faseak

6.1. Kartografia eta antzinako dokumentuak.

6.2. Jasotako testigantzak.

6.3. Erabilera publikoa egiaztatzeke beste datu batzuk.

7. Titularitatea eta prozesu administratiboa.

7.1 Titularitate presuntzioa.

7.2 Herri Jabariko ondasunen definizioa.

7.3 Jabari publikoko ondasunen inbentarioa.

7.4 Prozesu administratiboa.

- **ERANSKINA I. INBENTARIOA**

BIDEEN FITXA DESKRIPTIBOAK ETA PLANOAK

- **ERANSKINA II. KARTOGRAFIA**

INBENTARIATUTAKO BIDE PUBLIKOAK GAUR EGUNGO ARGAZKIEN GAINEAN

1.- Sarrera

Hemen aurkezten ari garen **agiri edo proposamen** honek, **udalerriko bide publikoen zerrenda** dauka bere baitan. Bere formatuaren bitartez, fitxa identifikatzaileak erabilia, gehitu den bide bakoitzari buruzko ahalik eta datu kopuru handiena bildu nahi da, bai agirietan bildutakoak, bai testigantza bidez jasotakoak, zein grafikoak. Azken batean, datu bilduma honetan bide horiek Jabari Publikoko Ondarearen Inbentarioan gehitzeko behar diren zantzu guztiak jasoko ditugu.

Landuko ditugun adierazgarrietariko batzuk nahikoak dira beren beregi bide bati Ondare Publikoko maila esleitzeko. Beste batzuk, berriz, bestelako iturri batzuetatik jaso behar dira. Kartografia historikoa, katastroaren dokumentazioa, 56ko hegaldiak eta beste batzuk, udaleko artxibategietan aurki daitezkeen era askotariko aipamen dokumental zaharrak eta ez hain zaharrak, lekuko testigantza biziak eta aztarna fisikoen lokalizazioa dira gure ikerketa-lanen muina. Paisaiaren arkeologiaren, landarearen, usadio zaharren, ondorioztapen historikoen eta abarren azterketak osatzen du bide bat Jabari Publikoari dagokion ala ez erabakitzeko zeregina.

Bistakoa da ikerketa lan hau oso neketsua dela, eta ikerketa paraleloetan gerta daitezkeen dokumentu baten aurkikuntzak edo testigantza baten agerpenak ez daukate zertan aldi berean jazo. Egoera hori dela eta, **bere burua elikatzen duen prozesu irekitzat** jo behar dugu lan hau, izan ere horrela izan behar duela xedatzen baitu toki-erakundeen ondasunen araudiak, ondasun publikoen inbentarioen urteroko berrikuspenak finkatzen dituenen.

Agiri hau aurkezten dugu, aipatu diren zantzu adierazgarri guztiak edo euretariko batzuk biltzen dituzten bideen zerrenda jasotzen duelarik. Udal teknikari-taldeak bere azterketa egin ondoren, aurkezpen, esposizio publiko eta alegazio protokoloari ekingo diogu, eta ondoren behin betirako onartuko den agiria aurkeztuko da.

Inbentariaturiko bideen sailkapena **Bide Nagusiak BN** eta **Bigarren Mailako Bideak BMB** artean bereizten da; eta kodifikazioak itxura hau dauka: **078001BN**, 078 da Zaldibiako udalerraren identifikazio kodea eta 001BN, Bide Nagusietan lehenengoa izango litzateke.

Komenigarria da zera argitzea: bide edo foru-errepide batetik 40 metro baino gutxiagora dauden baserrietaraino doazen **SARBIDEAK** ez ditugula inbentarioan gehitu, sarritan oso zailak direlako baserrien etxaurreetatik bereizten.

Gogoan eduki beharra dago, baita ere, **LANDA-BIDEEI** buruz ari garela, eta hori dela eta **ez ditugula inbentarioan gehitu hiri-lurzoruan, egoitzarako - lurzoruan edo ekonomia jarduerarako - lurzoruan kokatuta dauden bideak**, salbuespen gutxi batzuk izan ezik, baserri bateraino doazenak direlako, adibidez.

Erantsita dauden fitxetan bidearen datu identifikatzaileak eta historikoak daude, hau da, bidea publikotzat jotzera bultzatzen gaituzten bildutako zantzuak.

BIDEAREN IDENTIFIKAZIO DATUAK: data-basean sartzeko identifikazio kodea, gaurko izena (baldin badauka), udal barrutia, auzoa edo ingurua, etab. Inbentario honen xedea ez da **Zaldibiako** toponimiaren ikerketa egitea, horretarako, Eusko Jaurlaritzaren kartografia digitalean (Geoeskadiko BTA) ageri diren toponimoak izan ditugu kontutan.

Bideen eta beraien bide-adarren antolaketa aldagarria da. Beraien erabileraen ideia bat eman nahi dugu baina gehiegi fragmentatu gabe. Bide batzuek euren bide-adarrak dauzkate, estatus eta titularitate publikoa dutelarik.

BIDEAREN DESKRIPZIO DATUAK: Hasiera eta amaiera, luzera, zabalera, bide adarrak. Ondasunen mota juridikoa eta titulua. Eta kasuan - kasu, erabilera arrunt orokorrak edo bereziak izan ditzaketen murrizketen baldintzak.

BIDEAREN DATU HISTORIKOAK: lehenago aipatutako lau atalei dagokio, bere herri erabilera frogatzen duten Arrastoak. Antzinako kartografia. Antzinako idazkiak. Jasotako testigantzak. Herri erabilera frogatua.

Datu-babesa dela eta, fitxetan ez da testigantzei buruzko daturik ageri. Dena den, titulartasunari buruzko zalantzarik edo alegaziorik egonez gero, atal hauetan sakontzeko aukera izango litzateke.

KARTOGRAFIA / ORTOFOTOMAPA SHAPE eta PDF formatuan, edozein GIS Informazio Geografiko Sistemari gehitu dakioketena.

DIN-A1 tamainan erabili ahal izango den 1/8.500 **eskalako mapa orokorra** sortu da. Inbentarioan gehitu nahi ditugun bide guztiak gaur egungo ortoargazkietan erakusten ditu, onspen berria jasoko duten BN bide nagusiak eta BMB bigarren mailako bideak koloreen ezberdinen bidez bereizita agertzen direlarik. Udalplanetik jasotako beste informazio geruza batek egungo hirigintza-plangintza erakusten du, inbentario honen xede ez diren hiri-lurzoruak, egoitzarako eta ekonomia jarduerarako lurzoruak erakusteko helburuarekin, maila handiagoko antolamendu-tresnen menpe baitaude.

2. Egitasmoaren helburua

Zenbat liskar, borroka eta arazo sortzen dira bideen inguruan egon daitezken ikuspuntu, aurreikuspen edo jurisprudentzia desberdinen kontura; beraien jabegoa, eskubideak, ohiturak, betebeharrak etab.

Landa garapenean murgilduta dagoen gure ingeniariak etengabe ikusi eta sufritzen du arazo hau. Era berean udaletxetako profesional teknikari; idazkari, arkitekto, *urbanista*, aparejadore, *contratista*, *forestalista*, nekazari, ibiltari eta abar luze batek.

Eta zer esanik ez, askotan tresna juridiko egokirik gabe biztanleen liskarretan esku hartu behar duen batzorde munizipala berak.

Azpiegitura berriak, aurreikuspen urbanistiko berriak, antzinako komunikabideen berreskuratze lanak, landa-turismo berriak, xenda-zaletasunak, BTT ibilbideak etab, premia larria daukate behien betiko herrian dauden eta izan ziren bide guztien estatusa **ARGITZEA**.

Aurrean aipatutako ekintzetan ezinezkoa da titularitate estatusaren interpretazio interesatutan oinarritzea, jabe baten interesak medio edota auzotar baten nahi interesatuak ezin ditu irizpideak sortu.

Derrigorrezkoa da behin betiko bideen izaera finkatzea eta bakoitzari dagokion estatus legala izendatzea.

Modu honetan ez ditugu liskarrak ekidingo, baina hauek era egokian konpontzeko irizpide tekniko kontrastatuetan oinarritutako tresna oso baliotsu bat izango dute teknikari, politikari, administrariak eskuartean Gainera arazo mota hauek gaur egun ugaritu egin dira antzinako gizartea baino gizarte indibidualistago batean murgiltzen ari garelako.

Gure lana aurkeztu ostean, garapen urbanistikoko egitasmo berriek, azpiegitura berriek, errepide berriek edo zaharberrietuek, aisialdirako forma berriek sortzen dituzten liskarretan tekniko bakoitzak kontsultatuko duen dokumentua izango dute erabilgarri eta gaur egun dauden hutsune legal eta zalantzak betiko ezabatuko dira

Egia da epe batean jabego eta herritarren artean nolabaiteko eztabaida sortuko dela, eta egingo diren alegazioak asko eta era guztietakoak izango direla. Horregatik gure ingeniariak, aurrerapauso ofizialetan oinarritutako prozedura geldo baina bermatzaile bat proposatzen du,

gure teknikariak aurkeztutako sujerentziak aztertu eta irtenbide egokia ematen saiatuko dira, bai geografiko – historiko ikus puntutik bai juridiko – administratibotik ere.

Horretarako Herri Erakundetako Ondasunen Araudia 1372/1986, ekainaren 13ko Dekretu errealak jarraitu beharreko pausuak azaltzen dizkigu. Gainera lege honek ondasunen egoera eta berari dagozkien eskubideen inguruko ikerketak egitera bultzatzen ditu udalak, jabegoa agertzen ez den bitartean (prozedura azaltzen den atala ikusi)

Guk egitasmoaren fase desberdin guztietan hartuko ditugu parte, kanpo-lanak, Pleno municipalena aurkezpena eta inbentarioaren onartze ofiziala.

Aurkezpen publikoa eta zabala herritarren, jabeen eta interes daukaten artekoa, baita ere komunikabideentzako. Ikerketa-fasea amaitu ondoren, lehenengo zirriborroa aurkeztuko diogu udal-batzari, guztion artean agiriaren lehen azterketa egiteko. Edukia adostu eta haren inguruko argudiatze juridikoa aztertu ondoren, agiriari lehen onespena emango zaio. Jarraian Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Jendaurrean erakutsiko da hilabetez edo gehiago horrela ikusten badu Udalbatzak. Alegazioak. Gu geu arduratuko gara aurkeztu diren alegazio guztiguztiaz. Aztertu eta erantzun egingo ditugu. Horiek ebazteko orduan udalbatzarekin batera egingo dugu lan, behar bezalako aholkularitza juridikoaren laguntzarekin. Alegazioak ebatzi eta jakinarazi ondoren, agiria behin betiko onetsiko da. Osoko bilkuraren onespena lortu eta udal-idazkariak akta sinatu ondoren, prozesuan zehar antzemandako bideak Udalaren Jabari Publikoko Ondasunen Inbentarioan sartuko dira.

Tokiko Erakundeen Ondasunen Araudiak (RD1372/1986 ekainaren 13koa), 32.1 artikuluan dio:
“Los inventarios serán autorizados por el Secretario de la Corporación con el visto bueno del Presidente, y una copia del mismo y de sus rectificaciones se remitirá a la Administración del Estado y de la Comunidad Autónoma.”

Helbide hauetara bidali beharra dago:

- Gipuzkoako Gobernuaren Ordezkariordea / Subdelegación del Gobierno en Gipuzkoa. C/ Pio XII.aren Plaza, 6, 20010 Donostia

- Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoa Plaza, S/N, 20004 Donostia.

Baliteke bideren bat “ebazpenaren zain” geratzea unean-uneko zein aldi baterako arazoak direla eta. Halakoetan, bide hauek inbentariotik at geratuko dira, nahiz eta azken honek izapidean aurrera jarraituko duen, lana inbentarioaren osoko bilkuraren onespenerekin bukatuko delarik. Ordutik aurrera ikertu, irizpena eman edo ebatzi beharreko kasu bakoitza berariazko ikerketa espediente bitartez landuko genuke, lan eta aurrekontu honetatik at geratuko litzatekeelarik, eta udalak sustatzaileei diru-hornidura eskatu ahal izango die beroni ekiteko.

3.- Bide publikoen identifikaziorako oinarriak

Gipuzkoako bide eta errepideei buruz ari den azaroaren 25eko 17/1994 foru-arauak zera dio bere 3.3 artikuluan: ***Jendeak erabiltzeko irekita dauden lehorreko komunikabide guztiak herri jabetzakotzat hartuko dira***, eta jabetza, gainera, udalena da. Bizkaian ez dago bideei buruzko berariazko legedirik.

J.M. Barandiaranek “Euskaldunak” entziklopedian AUZOLANA zer zen definitu eta era horretan egiten ziren lanak azaldu egiten ditu. Bideei buruz zera dio: konponketa lanak auzolan bitartez egiten zirela, bideak ***“...caminos que unen las casas de la vecindad entre sí; la vecindad con el núcleo urbano o con una vía principal; o bien la vecindad con sus terrenos de monte comunal.”*** zirenean. Gauzak horrela, hauexek dira guk publikotzat joko ditugun bideak.

Auzolana giza - taldearen antolaketa modua da. Bere alderdi erromantikoena ezaguna den arren, kontuan izan behar dugu bideak konpondu beharra zegoenean derrigorrezkoa zela zeregin hau. Deialdietara baserri bakoitzetik lanerako gai zen hamalau urtetik gorako norbait joan behar zen, araua bete ezean diru-isuna ezarriko zelarrik. Beraz, **auzolana bide-azpiegiturak jagoteko nahitaezko ekarpena zen, taldearen zereginen garapen egokirako beharrezkotzat jotzen zituztelako. Hona hemen lurraldea antolatzen duen bide-sare horren izapide publikoaren beste erakusgarri bat.**

Asturiarrek SEXTAFERIA izena ematen diote, eta bideak, iturriak, nahiz uraskak konpontzeko, edo ehizaldi zein onura publikoa eta auzo-interesa duten zeregin eta lanak burutzeko **nahitaezko** lan kolektibo gisa definitzen da. ANDECHA (ORDEAK, 1929an Bonifacio de Echegarayk dioenez), berriz, norbanakoaren doaneko eta borondatezko lana da (gaur zureztat, bihar nireztat), eta azkar egin beharreko baserri-lanetan egiten zen batik - bat, lagun askoren beharra izaten zelako sarritan. Elkartasun beharra zegoenean (alarguntzea, gaixotasuna, etab.) ere hala egiten zuten auzotarrek.

Bideen mantentze eta konponketa lanak egiteko norbanakoaren edo auzotarren parte-hartzea 1785eko “Instrucción de Caminos”en, gai honen inguruko lehen legedian, hain zuzen, agertzen den nahitaezko zeregina da. Eta honek nahasmendu handia sortzen du gaur egun. Bide batean

lan egiten duenak, edo bere kabuz konpontzen duenak bere burua du jabetzat, eta batzuetan bere aitak berak ere konpontzen zuela adierazten du.

1953ko Azpeitiko agiri batean zera ageri da: *“El que suscribe, Alcalde de Barrio de Urrestilla, tiene el honor de poner en conocimiento de esa Corporación, que habiendo apreciado sobre el terreno las quejas formuladas por los vecinos que utilizan **el camino vecinal** que se dirige...en el sentido que se encuentra intransitable, es preciso se concedan a los mismos **MIL CIEN RACIONES**, para ser distribuidas **entre el personal que ha de laborar en su reparación**”.*

Era berean, Arrasateko auzo-bideak zerrendatzen dituen 1899ko agiri bat aztertzen badugu, adibidez, zera aurkitu dezakegu: *“Es de opinión unánime que los 61 caminos que cruzan en diferentes direcciones este término municipal, siempre han sido conocidos en el nombre de **caminos vecinales todos los cuales salvo alguna rara excepción son carretiles o de herradura y considerados de utilidad pública, como vías de comunicación que sirven de tránsito al público facilitando al mismo tiempo a los labradores de los medios necesarios para la realización de los múltiples y variados trabajos de labranza a que los mismos se dedican..... se continuará como hasta aquí facilitando la refacción de pan y vino a los vecinos de cada barrio los días que se dediquen a los trabajos personales de auzolan para la buena conservación de los mismos**”.*

Beraz, jendearen joan-etorrietarako eta baserriarren lanetarako erabiltzen dira auzo-bideak, eta onura publikokoak dira, auzolan bidez mantendu eta zaindu behar direlarik.

Gaur egun prozesu honek jarraipena izan du. Udalak, Aldundiaren edo estatuaren laguntza publikoak erabilita, baserrietako bide guztietako zoladura jartzen zuen eta sarritan jabeek onarpena emateaz gain, pozik eskaintzen zituzten alboko lurak ere haiek zabalagoak egiteko.

Arazoa zera da: sarritan bide horien kopurua handiegia dela eta, dirudienez, udalerrri batzuetan ez dagoela lan guztiei aurre egiteko adina diru. Lehentasunak ezarri behar dira, eta hutsik dauden baserrietara, bigarren bizitxeetara, basoetara, eta abarrera doazen bideak zerrendan azken geratzen dira, bukaeran beharizan handiena duen erabiltzaileak berak mantentze-lanei

ekin behar izaten dielarik. Honen ondorioz hainbat eta hainbat egoera nahasi sortu izan dira, bideratzen zailak bihurtu direnak maiz.

Barandiaranek esandakoan oinarrituta, auzuneko baserri guztiek sarbiderako bide publikoa daukatela esanaz bukatzen dugu. Guk 105/2008ko Dekretuan, 9. artikuluan egiten den definizioari jarraitzen diogu baserria sarbide partikularra daukan etxebizitza berri edo txaletetik bereizteko: 1950ko urtarrilaren 1aren aurreko okupaziorako lizentzia edo benetako egoitza okupazioa duen eraikuntza da baserria. Modu bereberean 9.2 artikulua hondakinetan geratu eta birgaitzeko aukera galdu duten baserriez dihardu.

Laburbiltzeko, esan dezagun bideen arloko jabetza publikoa antzina - antzinako garapen historiko - geografikoaren ondorioa dela: behinolako preskripzioari buruz ari gara, zerbaiten oso aspaldiko jabetzan datzana. Hona hemen, beraz, udalek aldarrikatu ahal izango duten bide askoren jabetza-titulua, eta helburu horrekin gauza bi ziurtatu beharko ditugu: **1. Jabetza (edo erabilera publikoa); 2. Jabetzaren antzina - antzinako izapidea.**

1830eko Azpeitiko beste agiri bat aztertzen badugu, hobeto ulertuko dugu zer diren bide publikoa eta oso aspaldiko zor edo erabilera: Auzokide batek bide bat itxi duela eta, erabiltzen duten auzokoen testigantza, kexu:

*“que como habitantes y vecinos que somos del barrio de Eizagirremendia, tenemos de **uso y costumbre inmemorial** pasar con nuestro ganado y consortes por el **camino público** que por el punto conocido.....dirige a las caserías y montes de aquella mediación. La **calidad de ser público ese camino e inmemorial el uso que hacen de él todos los habitantes de aquella barriada, parecía constituir en ellos un derecho perpetuo e indestructible, y una servidumbre continua en los terrenos por donde pasa, sin embargo...**”*

*“...prometió decir la verdad... de ser éste **público y de servidumbre** de tiempo inmemorial para el paso de ganado y carretas y especialmente de los habitantes del barrio de Eizagirremendia”.*

4. Definizioak eta aurrekari juridikoak.

Landa-bideen inguruan dagoen ezjakintasuna gaur egun bideak orokorrean pairatu duten atentzio faltaren ondorio dugu. Atentzio falta hau nabarmen egiten da, bidearen definizio juridiko bat ez dagoela ohartzen garenean. Ikuspuntu juridiko eta legetik begiratu ezker bide izan daiteke Errepideetako Legediak errepide izendatu ez dituen bide guztiak, bere berezitasun teknikoak kontutan hartu gabe, ondorioz errepideen berezitasunak izan ditzaketen bideak ere aurkituko ditugu.

Landa-bideen titularitatea eta erabilera interes bereziko gaia da, hainbat ikuspegi biltzen du, batzuetan kontrajarriak:

- Baserri eta nekazaritza ustiakuntzetara joateko bideena.
- Baso ustiakuntzetara joateko bideena.
- Hiritarrak naturara, mendira hurbiltzeko bideena (mendizaletasuna, mendi-ibilia)
- Zenbait kirol (mountainbike, motocross..) praktikan jartzeko bideena.
- Gure historia eta lurraldea interpretatzeko ondasun historikoaren elementu garrantzitsuak diren bideena.

Ikuspegi hauek guztiak zilegi, baina desberdinak, eta batzuetan kontrajarriak, diren interesei erantzuten diete. Horrek arazoak sortzen ditu hainbat gauza dela eta: igarotzeko eskubideak, mantenu eta kalteen konponketak, itxiturak, bidegabeko jabetza,...

Edozein gatazkak botere publikoaren erantzuna eskatzen du, lege araudi zuzena eta Administrazioaren esku hartzea, bideak zaindu, eraiki eta kontserba daitezten.

Udal batzuek horretara jotzen dute, eta horrexetarako da inbentario hau, hain zuzen ere, aspalditik konpondu gabeko gatazkak eta desadostasunak argitzeko. Froga argigarrien bitartez, inbentarioa lagungarri izatea nahi dugu, ikuspegi zabalagoak eskainiz datu hauen aportazio berriari esker.

Antzinako bideen terminoa ez dago inolako sailkapen legalean oinarritua. Garai aurre-industrialean motor gabeko garraioentzat eraikitako bideak sailkatzeko balio duen definizioa

dugu. Zein garraio motetarako eraikiak diren kontutan hartuta ondorengo sailkapena egin dezakegu:

- Gurdibideak, gurdia erabiltzeko eraikitako bideak. Kasu askotan bide hauek asfaltatu egin dira eta gaur egun landa-bide sarearen parte dira.
- Mandabideak, zaldi edo karga animaliak eta oinezkoak erabiltzeko eraikitako bidea. Basa eremutan ugaltzen diren bide motak ditugu hauek.
- Bidezidorrak , oinezkoentzak eraikitako bideak.
- Abel-bideak, abereak garraiatzeko sortutako bideak.

Elkartasuna eta jabetzaren helburu soziala ditugu Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko lege berriaren oinarri eragileetarikoen artean. “Banakako jabetzaz gainera, legeek Euskal Zuzenbide Zibileko jabetza forma berezi desberdinak babestuko dituzte, hots, auzo-jabetza, familia-jabetza eta gizarte-jabetza, betiere aplikatu beharreko aldiko errealitate sozialera egokitu daitezten.”

Lege berriaren ezarpenak ez bitza nahastu bide-zorrak (14. Artikuluan aipatzen den bide-zor pribatua, bide publikora irteerarik ez duena eta beste batzuen artean kokatutako lursailera doana, dagozkien lur nagusi eta zorpeko lurrekin), N. Vicario de la Peñak 1897an aipatzen zituen “servidumbre de camino de carácter público” (zordanbideak), hots, gaur egun “bide publiko” gisa ezagutu eta Toki-erakundearen Ondasunen Inbentarioan jasotzen direnak.

Euskal Herrian “Caminos de Servidumbre” izenaz ezagutzen diren bide gehien-gehienak, Gaztelan ez bezala, izaera publikoa dute, ez pribatua. Auzo-bide eta errege-bideekin batera, bide hauek osatzen duten multzoa, izan ere, EUSKAL HERRIKO BIDE PUBLIKOEN SARETZAT jo behar dugu, eta Jabari Publikoko Ondasun izaten jarraitzeko bermea izan dezaten merezi duten estatusa aitortu behar diegu, natura ingurunerako sarbidea eta mugikortasuna bezalako oinarrizko beharrez kolektibo erantzuna eman behar dietelako. Hala da antzina-antzina sortu zirenetik auzokideek eta bertatik pasatzen ziren guztiek, alboetako lursailen jabe izan zein ez, era komun eta orokorrean erabiltzen zituztelako, landa-ingurunearen erabilera ezberdinek behar duten mugikortasun orokorrerako sortuak izanik historian zehar lurraldea antolatu duten bideei buruz ari garelako, gaur egunean Bide Publikoen Sarearen parte direlarik.

“Camino de servidumbre” kontzeptuaren inguruan, Nicolas Vicario de la Peña-k, XIX. mende bukaerako legegile ospetsua (epaile eta jabetza-erregistratzailea 50 urte baino gehiagoan) hauxe dio bere Derecho consuetudinario de Vizcaya, 1897, obran:

“A primera vista parecen servidumbres privadas... es lo cierto que profesamos la opinión contraria, entendiendo que la senda y el camino carretil de las mieses ó heredades son en Vizcaya servidumbres públicas por la forma de constituirse, su manera de conservarse, modo de utilizarlas y mutua conveniencia de los predios sirviente y dominante.

En primer lugar, por la forma de constituirse, no ha sido el título legítimo el medio de darlas nacimiento; no se indica tampoco en su apoyo la prescripción; preguntad, si no, a aquellos que las disfrutan o las sufren, y todos unánimes y conformes os contestarán: En todo el Señorío, las servidumbres para las fincas son aquellas que les ha dado el uso y la costumbre, y que nadie puede perturbar o alterar en lo más mínimo. No invocan en apoyo de su disfrute el título, pues este medio, que únicamente admite el Código Civil para dar existencia legal a las servidumbres discontinuas, sean o no aparentes, solo daría derecho a aquel en cuyo favor estuviesen constituidas, y no podrían aprovecharse de las servidumbres así establecidas la generalidad de los vecinos; cosa que no acontece en este país, donde se transita libremente por sendas y caminos de los terrenos labrantíos, sin que puedan oponerse, ni de hecho se opongan, los dueños de las fincas respectivas. No es tampoco la prescripción el título al que alegan; la existencia de la servidumbre se funda en la ley de la necesidad, que primitivamente obligó a los dueños respectivos de las fincas, atendida la disposición topográfica del terreno, a dar acceso o paso a los demás colindantes, así como estos reconocían a su vez igual derecho a los demás asurcanos; en otros casos, el que por vez primera labraba una faja de terreno mayor o menor, se encontraba con que por ésta venían pasando anteriormente los cultivadores de los predios inmediatos, y al efectuar la roturación o desmonte reconocía y respetaba el uso establecido de pasar, bien a pie o con carro; y en ambas formas las servidumbres nacieron simultáneamente con la propiedad privada o con anterioridad a ella, porque hay que partir del hecho innegable de que la propiedad pública es anterior a la privada; que lo que fue primero de común aprovechamiento pasó luego al dominio del pueblo, de la tribu después, de la familia más tarde y del individuo finalmente.

La manera de conservarse las servidumbres también demuestra el carácter público que tienen, pues hállanse bajo la salvaguardia de los Ayuntamientos y alcaldes de barrio, que desde antiguos tiempos han venido interviniendo en el arreglo y conservación de las mismas, como de interés común, sin que la codicia ni el abuso de los vecinos pueda alterar o gravar el disfrute de ellas.

El uso de las servidumbres es común y general a todos los vecinos y transeúntes, sean o no dueños de las fincas en el término o vega por donde tienen que atravesar la senda o carretera; y es que éstas, no solo reportan utilidad y satisfacen la necesidad de dar acceso a las fincas, sino que además responden a una necesidad general, dada la naturaleza y topografía del terreno, la humedad del clima, etc., bien para poner en fácil y breve comunicación, sin las humedades de los caminos de barriada, a un grupo de casas con otras, o ya para dar salida a sus fincas, o al monte común o particular o a otro sitio cualquiera”.

Gehien-gehienak direla diogu, denak ez direlako. Izan ere, egon badaude bide-zor pribatu garbiak direnak, euren lur nagusi eta zorpekoak dituztenak, eta dagozkien titulu edo preskripzio eskuratzaillea ere badutenak (5/2015 legea 14. artikulua). Baina, jakina, Bizkaiko eta Gipuzkoako baserritarrak ez dira hauei buruz ari, behin eta berriz “Hori zordanbidea da eta zabalik egon biko da beti!” aldarrikatzen dutenean, adibidez. Bide publikoei buruz ari dira, zalantzarik gabe. Eta hauen gaineko eskubideak ez ditu soilik, bere alde esleitu den zortasuna duen jabeak, auzotar eta ibiltari orok baizik, izan inguruko lursailen jabe do ez, ezingo dutelarik horren kontra egin, eta ez dutelarik kontra egingo, mugakide diren lursailtako jabeek.

“Las servidumbres rústicas de senda, camino y paso por heredad ajena carecen por punto general de título en que fundarlas, y de prescripción en que apoyarlas; tienen el carácter de públicas, y por el uso y costumbre han sido establecidas, sin que su existencia conste inscrita en el Registro de la propiedad correspondiente, siendo la autoridad administrativa la encargada de mantener el buen orden en el régimen de la propiedad comunal particular de los municipios... y a ellos debe continuar sometida esta materia si no se quiere ver surgir empeñados y enojosos pleitos, donde la resolución judicial ha de ser reñida con la realidad, pudiendo ser estrictamente legal conforme al derecho de Castilla, pero prácticamente inicua, por estar en pugna con el consuetudinario de Vizcaya”.

Ez dugu ulertzen, ez eta konpartitu ere noski, gaur egunean, garai hartan idatziriko eskriturak aztertzean (ohikoa da lursailen lehenengo erregistroak Jabetza-erregistroaren hastapenekin bat egitea, 1861eko Hipoteka legean ezarria), “camino de servidumbre” bati erreferentzia egirik modu orokor eta automatikoan, esparru pribatuarekin identifikatzen dela, mugakideren batek eskuratzen duelarik bidearen titulartasuna. Eskriturek “camino de servidumbre” aipatzean bi kasuak eman daitezke: pasatzeko eskubide bat izatea, lur nagusi batera doan bide-zorra, edo bestela, bide publikoa izatea.

Nahiz eta bideen inguruko auzietan behin eta berriro, eta esku-hartzea duen aktore orok, eskrituretara jo zantzu esanguratsuen bila, baieztatzeko moduan gaude, bideen esparruan, eskriturak ez direla erabakigarriak, ez behintzat euren interes pribatuak, antzina antzinatik euskal lurraldea egituratu zuen Bide Publikoen Sarearen (eboluzio naturalean erabilera tradiziozkoak eta berriak modu naturalean tartekatu dituen) interesen aurretik jartzen dituztenek erakutsi nahi diguten bezain erabakigarriak. Bideen kasuan, baieztatu dezakegu, duela mende edo mende erdi ezarritako eskriturak izanik, gaur egunean substantzialki aldatu direla zirkunstantziak eta hauekiko egungo aktoreek egiten duten interpretazioa, eskriturak anakronikoak direlarik. Badirudi denek ahaztu dutela bideak direla eskritura propiorik ez dutenak euren defentsa edo babeserako.

“Bideen erabilerak”: Artikulu honetan garatzen ari garen ideia nagusiaren espiritua ulertu ahal izateko, berebiziko garrantzia du bidearen “erabilera orokor komuna” eta “erabilera berezia” bereiztea. “Erabilera orokor komuna” bideari inolako kalterik eragiten ez diona da, besteen eskubideei eragiten ez diona eta ez duena ez gertaera, ezta ekintza berezirik behar gauzatu izan dadin. Oinezkoen, zaldi-gaineko eta bizikletadunen erabilerak, jakina, mota horretakoak ditugu, baita erabilera berezitik at dagoen, eta helburu horrekin egokitua izan den beste edozein erabilera ere. Hauxe berau da udalak bere bide publiko guztietan bermatu behar duen erabilera, egoera bereziren baten ondorioz baldintzatu edo mugatu beharrik ez balego, behintzat, beti ere salbuespen hau udal araudian jasota egon beharko litzatekeelarik.

“Bidearen Erabilera berezia” bidearen erabilera intentsuagoa, arriskutsuagoa eta, bideari eta bere inguru naturalari kalte handiagoa eragiten diona da. Kontrolen menpe dago, eta behar bezala jagoteko eta eragindako kalteak konpontzeko helburuarekin, udal-araudiak antolatuta egiten du nolakoa izan behar den erabilera berezi hau. Gehienetan, Euskal Herriko bideetan

baso-erabilerak dira atal honen barruan daudenak, eta fidantza eta zerga bidez arautu ohi dira, ia beti lur-zorua eta ingurua zaintzea xedetzat duen baso-langintza ohitura zaharraz gain. Gero eta onartuago dago erabilera zuzenak onura eta abantaila handiagoak dakartzala neurrigabekeriak baino. Arlo honen barruan motordun ibilgailuekin lotuta dauden aisialdi-erabilerak ere baditugu, baita berriak izateagatik oraindik arautu gabe dauden, baina dagoeneko gatazkak sortzen hasi diren beste lehiaketa berri batzuk ere. Halakoetan, eta arrazoi handiagoak direla medio, araudiari begiratu egin behar zaio, hau da, “nola” erabili behar diren bideak, eta azpiegitura hauek era arrazionalen erabiltzen lagunduko diguten artikulu berriak garatu behar dira. Erabilera bereziak kontrolpean eduki behar ditugu, eta hauek dakartzaten irabaziak bideok jagon, konpondu eta hobetzeko helburuarekin erabili, ohiko jarduera ekonomiko eta sozialari inolako kalterik egin gabe. Erabilerak Tokiko Erakundeen Ondasunen Araudiaren 76 eta 77. Artikuluetan agertzen dira.

Inbentario honen helburua bideen titulartasuna argitzea da, inolaz ere ERABILERA BEREZIAREN funtzionamendua eraldatzea; kontu horiek, bideei mugakide diren Jabe-elkarteen Estatutuek zuzenduko dituzte edota hauen faltan udal araudiaren bitartez.

“Zabalera eta Trazadura aldaketak eta beste hobekuntza batzuk”: Bideak bizirik daude. Bistakoa eta onartua da bideek gurekin eta eman diegun erabilerekin batera aldatu direla. Hasiara batean mandabidea zena, ondoren gurdi-bide bihurtu zen, eta aurrerago kotxeentzako edota basolanetan ari diren kamioik ibiltzeko besteko zabalera eduki zuen, gure lurraldean oso arrunta den adibide bat ematearren. Zabalago bihurtu ziren heinean, zoladura ere aldatu egin zen, eta garrantzitsuagoa dena: trazadura ere bai. Bidea bat da, eta, era biribilean esatearren, mugakideen onarpen tazituarekin trazadura edo zabalera aldatzen zaionean, berriak ondorio guztietarako ordeztuko du aurrekoa, ez bada zaharra beste erabilera edo balio kultural edo naturalengatik mantendu nahi. Eta hori, eraldatu gabeko eskriturek horrela zehaztu ez arren. Berdina gertatzen da zoladurarekin, gehienetan instituzio publikoek ordaintzen dituzten berritze obretan, edota sarri, kostuetan laguntza ematen zaienean eraginak jasan dituzten onuradunei, jabe sentitu ohi diren horiei.

5. Inbentarioaren erabilerak.

- Garapen urbanistikoko egitasmo berriek: inbentario honen bidez lurraldea elkarlotzen duten bideei buruzko informazioa edukiko da plan eta garapen berrietan aintzat hartu daitezzen.
- Nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategietara doazen Bideen berritze eta egokitze obra berriek.
- Hornidura azpiegitura berriek: ur horniketak, isurbide eta estoldak, telefonía, sare elektrikoa, gasa, etab.
- Errepide berriek,
- Aisialdirako forma berriek , oinezko bide, BTT, zaldizko bide, ... ez baita ahaztu behar “bide zaharrek” erabilera publikorako eskaintzen duten bermea.
- Nabarmenezko erabilera, liskarrak konpontzeko erreminta dela: lur-jabeen, bizilagunen, ... bideen erabilerarekiko, eskubide eta betebeharreko adostasun ezak konpontzeko.

Gure lana aurkeztu ostean, aurreko jarduera guztietarako, tekniko bakoitzak kontsultatuko duen dokumentua erabilgarri egongo da eta kasu bakoitzerako zalantzak argituko zaizkio jabeagoari, obretan sortzen diren arazo eta alegazioari etab. dagokionean.

Gure aholkua izaten da udalerriko plangintza urbanistikoan ere inbentario hau sartzea, “Sistema Orokorren erregimenean: Landa bideak edo herribideak”. Horrela juridikoki inportantzia handiagoa edukiko dute eta gainera erabilerak eta abar arautu ahalko dira.

6. Metodologia eta faseak

Lurraldearen analisisa kartografia eta landa-lana uztartuz egiten dugu; honela jardunez helduko baikara bide-sarearen konfiguraziora ulertu eta beraz zehaztera. Antzinako kartografia eta katastroa (50. urteko aire-argazkiak eta planoak), antzinako idazlanak, bildutako testigantzak, Herri erabilera frogatua duten lekuen ezagutza. Bakar bat ere ez da determinantea bere soiltasunean, guztien batura edo zantzuetariko batzuen metaketa da koherentzia ezarriko duena eta bide baten izapide publiko edo pribatua zehaztera eramango gaituena.

Zera komeni da azaltzea: informazio fronte guztiak aldi berean helduko direla, datuen harrapaketa **prozesuaren auto-elikatzean oinarritutako metodologia gauzatuz**. Hau da, adibidez, lehenengo lekuko informatzaileen testigantza jaso eta gero bulegoan antzinako kartografia eta artxiboko dokumentazioa aztertuz egiaztatu egingo da. Baina era berean, antzinako kartografia landa-lanean birplanteatu eta momentu horretan “in situ” jasotako testigantzekin egiaztatuko da.

Bide baten egikaritzarako kontuan hartu izan den figura expropiazio espediente baten zabaltzea izan da, edota kasurik onenean, eta ohikoa delarik, jabeek euren lurra eskaintzea interes propio eta orokorraren mesedetan. Historikoki gisa honetako zesioak ez dira Notario aurrean erregistratu izan eta ondorioz gur egunean errealitate fisikoaren bat ez datozen deskribapenak aurkitu ohi dira.

Hau horrela delarik, gure analisiak zabalagoa izan behar du eta eremu historiko – geografiko – administratiboan sakondu beharra dugu, udalerrietako bide publikoen bizi-iraupenaren gako den “Egintza Administrazio”-a burutzeko: **Bide Publikoen Inbentarioari Udal batzak emango dion Behin-betiko onespena eta aktan jasoa geratzea.**

Lana hiru fasetan banatzen dugu: Ikerketa, instrukzioa eta erresoluzioa.

Ikerketa fasea Hasierako Onespenerako dokumentuaren entregarekin bukatzen da eta orduan ematen zaio hasiera instrukzioari.

Bigarren fase honetan egikaritzaren administratiboa gauzatuko da, bere esposizio publikoa; kontsulta tekniko eta helegiteekin. Hirugarren pertsonengan zein interesa izan lezakeen pertsona kopuru mugagabe batengan eragiten duen gaia izanik, kontu handiz landu beharko

da proiektu honen iragartzea. Buletin Ofizialean bezala tokiko zein probintzietako prentsan eta hedabideetan proiektuaren berri emanaz.

Azkenengo fasean lanari aurkeztu zaizkion helegiteen ebazpena burutuko da: publiko/pribatuaren lehenengo estimazioa aldatu lezaketen argudioak, dokumentuak edota bestelako dokumentuak ikertuz eta aintzat hartuz. Hirugarren fase honen bukaera Behinbetiko onarpenerako dokumentuaren entregarekin bukatuko da.

6.1. Kartografia eta aitzinako dokumentua.

Hasteko **Udal-agiritegietako** fondoak kontsultatu ditugu. Orokorrean Udal Agiritegi Historikoa ez da oso erabilgarria izaten, gordetako agiri urrietan agertzen diren datu historikoak mugatuak direlako. Kontuan izan behar da udal gehienek horrelako artxiboekiko erakutsi duten interesa oso txikia izan dela orain gutxi arte eta horrek informazio iturri baliagarri baten galera ekarri du.

Fondoek hartzen duten kronologi - espektroa XIX eta XX. mendeetan oinarritzen denez kasu gehienetan, gure lanari eskain diezaioketen laguntza populazio erroldetatik, landa-lur eta hiri kontribuzioetatik eta herri-lan eta udal-agirietatik ateratzen den datu zehatzetara mugatzen da.

Foru agiritegian sarritan zehaztasun gehiagorekin aurkitzen diren bide eraikuntzako espedienteei buruz egindako aipamenez osatzen dira datu hauek batzuetan.

Artxibo Orokorren barne, **atal administratiboa** da hain zuzen ere gehien kontsultatuko dena. Atal honek dauzkan azpiatalen artean informazio gehien eskaintzen duena **“Carreteras, caminos vecinales y de barriada” azpiatala** da, bertan XIX. mende amaieran eta XX. aren hasieran egindako auzo bideen plano eta espedienteak aurkitzea posible baita, zeinetan egon diren bideei buruzko informazio dokumentala eta grafikoa jasota geratzen da.

Baina emaitza garrantzitsuenak bertan aurkitutako kartografia historikotik lortuko dira eta lehenago aipatutako *Carreteras, caminos vecinales y de barriadan*. Errepide buruzko proiektuen planoak, metroak eta metroak dauzkaten planoak, kontsultatu ditugu.

“Centro Nacional de información geográfica” eta **“ Servicio geográfico del Ejército”** azpialat **kartografikoei** buruz, interes handikoak direla aipatu beharra dago. Eranskinean ikusi daiteke fondo horretan aurkitutakoa. Eremu geografiko mugatu bati buruzkoak direnean informazio oso zehatza eskaintzen dute, hau da udalerriko minutak. Kasu honetan aurkitu duguna eranskinean dago.

Udaletxean bertan dagoen kartografia (50. hamarkadakoa) eta geure fondo grafikoak ere garrantzitsuak dira ikerketa honetan, denborarekin balio handiko geurea den kartoteka historiko bat sortzen joan baikara. Bizkaiko Foru Aldundiaren 1927ko bilduma kartografikoa 1/25.000 eskalan hain zuzen, landa-laneko kaierak barne (1924an, topografo arduraduna berak, aipatu maparen aurre-dokumentazio fasean jasotako apunteekin, zeinak zeharkatzen zituen bideetan, gurdibide eta mandobideak seinalatzen zituen ondorengo prozesu kartografikorako).

Erabilitako beste iturri bat **Katastroa** izan da.

Gure ikerketarako partzelen banaketaren distribuzioak ematen digun informazioa oso baliagarria da. Poligonoen muga bezala udalerriko komunikazio bide garrantzitsuenak erabili izan dira. Datu hau bidearen herri erabilera indartzen duen indizio bat da, eta kontuan izango dugu, bidea garaian garrantzitsua izango ez balitz ez litzatekeelako 50. hamarkadan (Katastroa urte hauetan egin zen) **poligono katastralen banatzaile** izango. **Katastroa egiteko 1942 urtean arau batzuk eman ziren:**

Capítulo II. Instrucción 11: “Los límites de polígonos serán siempre líneas permanentes no expuestas a variaciones como ríos, arroyos, caminos vecinales, carreteras, canales, etc. Se prescindirá por tanto de arroyos cuyo curso pueda variar, caminos rurales que no estén bien determinados y puedan asimismo cambiar de un año para otro, sendas, caminos de servidumbre que puedan perderse y, en general, de cuanto no presente garantía de inmutabilidad”.

54-56 urteko hegazkinen argazkiak katastroa egiteko erabili zirenak orduan zeuden bideak eta euren trazaketak erakusten dituzte.

Jabetza Erregistroaren gaur - egungo egoera Katastroarenarekin bat dator. Dauzkagun datuak jatorrizko etxaldeei dagozkie eta berauetan egondako banaketen ondorioz sortutako etxaldee.

Hori bai, erregistratutako etxaldeak oinarritzkoen kopiak dira. Honek etxalde, lursail eta onibarren jabe batzuen izen edo eta grafien transkripzioan akatsak sortzen ditu, baten baino gehiagotan ez baitatoz Katastroan dauden eta are gutxiago gaur egun erabiltzen direnekin bat. Arazo honi jabeak emandako deskripzio interesatua gehitu behar diogu. Salbuespen bat ez bada ez gara gai honetan gehiegi murgiltzen.

*Euskaratu gabe dakargun arren, eskrituren afera argitzeko ahaleginean, onartu bedi jarraian aurkezten dizuegun gaztelerazko testua hemen txertatu izana:

Tampoco es prioritario el estudio de las escrituras que tiene un valor informativo y aunque ello sea bien sabido, cabe recordar que el principio de legitimación registral o de presunción de exactitud "*no se extiende a los datos Físicos o de mero Hecho, que no quedan cubiertos por la fe pública*", que "***reiterada doctrina jurisprudencial señala que el citado Registro carece de una base física fehaciente, ya que reposa sobre las simples declaraciones de los otorgantes y, en consecuencia, no garantiza los datos y circunstancias de mero hecho que se constatan en el mismo, como son la naturaleza, situación, linderos y superficie de la finca inscrita, nombres con que son conocidos los parajes o los referentes a su superficie.***"

Nos interesa destacar especialmente dos aspectos que contempla la doctrina:

1. Los datos informativos que contiene la descripción de la finca reposan sobre la simple declaración de los otorgantes.
- 2. En caso de discrepancia, la realidad física o extraregistrarial de la finca prevalece sobre la realidad registral.**

Por consiguiente, a la hora de analizar el valor informativo de la escritura habrá que tener muy presente que la redacción de la descripción de la finca surge de un acto unilateral de naturaleza subjetiva sin contrastar, pues el autor original del contenido del documento es el

propio interesado y porque en su materialización no intervienen terceros directamente implicados, como los titulares de las fincas colindantes o los ayuntamientos en el caso de los caminos públicos.

Los títulos de propiedad pueden usarse para defender o rechazar la existencia de caminos públicos, pero hay que subrayar que **la finalidad de la descripción de la finca no es determinar la existencia o la titularidad de caminos.**

Los caminos públicos sólo excepcionalmente están inscritos en el Registro de la Propiedad y esto fundamentalmente porque tanto la legislación hipotecaria como la municipal establecen que los bienes de dominio público son exentos de inscripción, y no es hasta la modificación del año 1998 que el Reglamento Hipotecario prevé la posibilidad de inscribirlos. Por consiguiente, **la ausencia de inscripción de un camino público ni prueba la inexistencia del bien ni contradice su naturaleza pública.**

A menudo nos presentan las escrituras de propiedad o la nota simple del Registro alegando la ausencia de información para negar la existencia de un camino público o de un lindero concreto. "*Mi escritura no dice nada*". Siendo el principal argumento. El *argumentum ex Silentio*, consiste en la interpretación de la omisión de información en el documento como una afirmación negativa, cuando en realidad la omisión equivale simplemente a un "**no data**", es decir a una ausencia de evidencia que sólo tiene un débil valor probatorio en ausencia de otras evidencias contradictorias.

Se trata primeramente de documentos subjetivos producto de un acto unilateral efectuado por un propietario original generalmente incompletos e imprecisos, y que pueden ser fósiles informativos, aunque también documentos dinámicos y cambiantes, y que contienen carencias y errores, que pueden además acumularse con el tiempo.

Hay que analizar e interpretar los datos que estos contienen objetivamente, críticamente, científicamente, tal y como hay que hacerlo con cualquier fuente documental, contextualizándolos y confrontándolos con el resto de fuentes de información y de medios de prueba.

6.2 Jasotako testigantzak.

Atal honetan, lan honetan informazioa eman diguten bai udal ordezkari zein teknikariak, bai kasualitatez edo zita baten bidez bisitatutako lekuko informatzaileak eta adituak batzen dira.

Oraindik badaude bideen erabilera eta ibilbideei buruzko oso baliogarria den informazioa eman dezaketen pertsona nagusiak. Baina ez diruri ondorengo belaunaldietara heltzen ari den gaia danik, beraz momentu hau aprobetxa behar dugu.

6.3. Erabilera publikoa egiaztatzeko beste datu batzuk.

Bide baten izaera publikoa egiaztatzeko aurreko kapituluetan aipatutako arrazoiez gain, bestelako arrazoi edo arrasto batzuk adieraziko ditugu honako honetan:

- Erabilera publikorako zabalik:

Gipuzkoako Errepide eta Bideei buruzko Foru Agindua aipatuz: *Titularitate publikoduntzat jotzen dira erabilera publikoa duten bide guztiak*. Titularitate hori, gainera, *udalarena* da.

Udalak mantendutakoa (garbiketak, elurra, etab.), erabilera publikorako zabalik edota mendi ibilbide baten parte hartzea.

- Arrastoak edo aztarnak

Bide baten garrantzia argi igartzen da arrasto eta aztarnen bidez. Nolabaiteko garrantzia izan duen bide baten existentzia modu argi batez igarri eta ikusten diren arrastoen bitartez antzeman daiteke. Adibidez harri-bide baten arrastoek **galtzada** bati buruz berba egiten digute. Hauek ez ziren partikularrengatik eraikiak izaten, zentzu kolektiboa izaten zuten, herri erabileradunak eta auzotar guztiengatik zainduak izaten ziren, inolaz ere ixten edo oztopatzen ez zirenak. Kontuan hartzekoak dira ere bidegurutzeak, hormatxoak,...

- Baseliza edo erabilpen amankomuneko lekuetara joateko beharrezko bideak

Idatziz jasota dago garai baten eliza eta baseliza inguruetan burutzen ziren **letaniak**, **errogatibak**, **prozesioak**, erreguak eta holakoak egiteko bide jakin batzuk erabiltzen zirela. Eskolek, errotek, ferratokiak, latsarri edo harraska, karobiek, zerrategiek eta beste hainbeste erabilpen kolektiboko lekuk bere bide propioa zuten.

Ospakizun eta ekintza hauetarako erabiltzen ziren bideak herri erabilera zabaldua izan zutela ulertzen dugu. Arrazoi honengatik inbentarioan sartuko ditugu. Era berean leku herrikoiak eta hauei lotutako ospakizun jaiak hartuko ditugu kontutan.

- Bidearen antzinako deitura

Antzinako dokumentuetan eta batez ere antzinako kartografian izen zehatza duen biderik aurkitzen bada, bi leku garrantzitsuren aipamena egiten duena, izan bi herri, bi auzo edo herri bat eta auzo bat, herri erabilera orokortua izan duen bidea dela erakusten da modu batez. Hau da, ez dela partikular batek eginga baizik eta zentzu kolektiboagoa duen bidea dela, auzotarren laguntzaz mantendua eta inondik inora itxi ezin daitekeena.

Modu berean *andabideak* edo hileta bideak deituak diren bideak ere hartzen ditugu hemen kontutan.

7. Titularitatea eta prozesu administratiboa.

7.1.- Titularitate presuntzioa.

EHUn Zuzenbide Administrazio irakasle batek honako hau dio, Gipuzkoako Errepide eta Bideei buruzko Foru Agindua aipatuz: *Titularitate publikoduntzat jotzen dira erabilera publikoa duten bide guztiak*. Titularitate hori, gainera, *udalarena* da.

Presuntzioak ez du esan nahi titularitate publikodunak badirenik, ez eta aurkako frogarik ez legokeenik, baina **frogaren pisua eraldatzen du**: printzipioz publikotzat hartu beharko dituzte partikularrek, Notarioek, Erregistradoreek, Auzitegiek eta Administrazioak. Titularitatea aldarrikatzen duten partikular horiek frogatu egin beharko dute berori.

Bideen gaiari dagokio, jabetza publikoa antzinako historiko-geografiko prozedura batean datza: Antzinako preskripzioa, hau da gauza bat aspaldi-aspalditik edukitzea. Orduan lan honetan gauza bi demostratu behar ditugu: 1.- Edukitza (edo erabilera publikoa); 2.- Aspalditik izatea.

Bideak zerbitzu gisa izenda dezakete beraien jabeek, honek nahiz eta bide publikoa izan erabilera baldintza batzuk jartzeko eskubidea bermatzen die

Ikuspuntu administratibotik begiratuta bideak pribatuak edo publikoak izan daitezke, beraz beste inolako titularrik agertzen ez bada bide municipalak izango da.

7.2.- Herri Jaberiko ondasunen definizioa.

Ekainaren 13ko 1372/1986 Erret Aginduko 2 eta 3 artikuluetan non Entitate Lokalen Ondasunen Araudia onartzen den zera esaten da:

“Los bienes de las Entidades Locales se clasificarán en bienes de dominio público y bienes de patrimoniales.

Los bienes de dominio público serán de uso o servicio público.

*Son bienes de uso público local los **caminos**, plazas, calles, paseos, parques, aguas de fuentes y estanques, puentes y demás obras públicas de aprovechamiento o utilización generales cuya conservación y policía sean de la competencia de la entidad local.”*

Son bienes de servicio público los destinados directamente al cumplimiento de fines públicos de responsabilidad de las Entidades Locales, tales como Casas consistoriales, Palacios provinciales y, en general, edificios que sean de las mismas, mataderos, mercados, lonjas, hospitales, hospicios, museos, montes catalogados, escuelas, cementerios, elementos de transporte, piscinas y campos de deporte, y, en general, cualesquiera otros bienes directamente destinados a la prestación de servicios públicos o administrativos.

Horren ondorioz Udalak mantentzen dituen bideak, erabilera arrunt orokorrekoak, erabilera publikorako ondasunak dira eta horregatik Entitate Lokalaren Herri Jabariarenak dira.

Herri Jabaridun ondasunak eskuraezinak, preskribitzen ez direnak eta Administrazioak ofizioz berreskuragarriak dira. Hori nabarmenduz honakoa frogatzen da: bide bat erabiltzeari utzi izanak ez duela esan nahi bere izaera publikoa galdu duenik eta dagokion Administrazioak erraz berreskura dezakeela, izaera hori galdu duela iruditu arren.

Domeinu publikodun ondasunak ezin dira bereganatu, betirako izango dira eta administrazioak ofizioz berreskura ditzake. Bereztasun hau azpimarratzen dugu bide batek erabilera galdu izanagatik izaera publikoa galtzen ez duela garbi gera dadin eta nahiz eta horrela dela uste dagokion administrazioak erraz berreskura dezake.

7.3 Jabari publikoko ondasunen inbentarioa.

Ekainaren 13ko 1372/1986 Dekretu Errealaren 17. artikulua arabera, zeinen bidez Erakunde Lokalen Ondasunen Arautegia onesten da.

*“Las Corporaciones Locales están obligadas a formar un **inventario** de todos sus bienes y derechos, cualquiera que sea su naturaleza o forma de adquisición”. Bestalde, 34. artikulua arabera, “El pleno de la Corporación Local será el órgano competente para acordar la aprobación del inventario ya formado, su rectificación y comprobación”.*

Nahiz eta inbentario hau batzutan gaurkotu gabe egon eta daukan informazioa, bidei buruzko kapituluan, batzutan zuzena ez izan, lehenago aipatutako artikulua kontutan izanik, inbentario horrek balio juridikoa daukala esan dezakegu.

Beraz, inbentario horren barne dauden bideek Domeinu Publikodun Ondasunen maila hartu dute, eta udal bakoitzeko Udalbatzaren baiezkoa lortu dute.

Bide publikoen gaia gehiago sakonduz, hiru egoera ezberdin aurkitu daitezke. Egoera bakoitzaren aurrean Udalbatzak jokaera ezberdina izan beharko du. Honela zera aurkitu dezakegu:

*.- Publikotzat onartzen diren bideak eta Domeinu Publikodun Ondasunen Inbentarioan sartuta daudenak.

*.- Publikotzat onartzen diren bideak, eta Domeinu Publikodun Ondasunen Inbentarioan sartuta ez daudenak, zeinetan posible da era ezberdinetan beraien erabilera publikoa justifikatzea, bai antzinako dokumentuetan auzo bide, errege bide, etab. bezala azaltzen direlako, bai antzinako kartografian marraztuta agertzen direlako, baita katastral poligonoak banatzen dituztelako edo eta bide hauek erabilera publikoa dutela, edo izan zutela, frogatzen duten lekukoak daudelako.

Domeinu Publikodun Ondasunen Inbentarioaren parte izateko hautagaiak izanik, Udalbatzak onartzerakoan bere barne egongo lirateke.

45. artikulua araberaz: *“Las Corporaciones Locales tienen la facultad de investigar la situación de los bienes y derechos que se presumen de su propiedad, siempre que ésta no conste, a fin de determinar la titularidad de los mismos”.*

Eta 46. Artikulua araberaz: *“El ejercicio de la acción investigadora podrá acordarse:*

- 1- *De oficio, por la propia Corporación, a iniciativa, en su caso, de cualquier otra Administración que, en virtud de los deberes de información mutua y colaboración, ponga en su conocimiento los hechos, actos o circunstancias que sirvan de base al ejercicio de dicha acción.*
- 2- *Por denuncia de los particulares.”*

*.- Publikotzat onartzen ez diren bideak baina Dominio Publikodun Ondasunen Inbentarioan sartuta daudenak.

Dagokion Udalbatzak, bide horren kalifikazioa aldatzeko akordioa lortu beharko du, Dominio Publikodun Ondasunen Inbentariotik desagertu daiten.

Kalifikazio juridikoaren aldaketa:

8. artikulua araberaz, *“La alteración de la calificación jurídica de los bienes de las Entidades Locales requiere expediente en el que se acredite su oportunidad y legalidad.*

El expediente deberá ser resuelto, previa información pública durante un mes, por la Corporación Local respectiva, mediante acuerdo adoptado con el voto favorable de la mayoría absoluta del número legal de miembros de la misma.

No obstante, la alteración se produce automáticamente en los siguientes supuestos:

- *Aprobación definitiva de los planes de ordenación urbana y de los proyectos de obras y servicios.*
- *Adscripción de bienes patrimoniales por más de 25 años a un uso o servicio público o comunal.*
- *La entidad adquiera por usurpación, con arreglo al Derecho civil, el dominio de una cosa que viniere estando destinada a un uso o servicio público o comunal”.*

7.4 Prozesu administratiboa.

Bideen eta jabetzaren inguruan dagoen ez - adostasuna nabaria izanik; eta Tokiko Erakundeetako Ondarearen Arautegiak zehazten ez duen arren, oso gomendagarria da proiektua hasi orduko **aurkezpen publiko** bat egitea, ahalik eta zabalena herritar eta interes dunen artean. Helburua lanaren berri eman eta metodologiaren azalpena eskaintzea izango da, zuzen-zuzenean auzotar, lur-jabe etab.-ek jakin dezaten zer eta nola egiten ari den.

Azaldu beharrekoa da Udaletxeak bere zeregina beteaz bere Ondasunen Inbentarioa burutuko duela, bideei dagokionean; xedea, beren ordenamenduak eta erabilerak dakartzaten aferen gestioa dela eta azkenik; azalpenik eta zailena, nola egiten den bideen Inbentarioa. Aurkezpena injinerutza taldeko teknikoek burutuko dute metodologia eta egintza administratiboaren berri modu didaktikoan emango dutelarik. Honela jardunez inortxo ez da geratuko hitzik gabe, irizpideen trukatu edota informazioa eman gabe.

Ondoren hasiko dugu herriko bideen ondarearen ikerketa teknikoa, bide bakoitza dokumentatzeko fitxa sortuz. Bere kartografia historikoa, dagokion bibliografiko eta artxiboa, testigantza, argazkiak, aireko ortoargazkia eta bere adierazgarri edo oharrak, kasu bakoitzean batzen direnak.

Emaitza lez eskuratutako bide sarea eta datu guzti hauen bilduma, izango Udal plenoan onartu beharrekoa eta “Inventario de Bienes de Dominio Público”, “Camino” atalean sartuko dena.

Inbentarioaren hasierako onarpenaren ostean, kontsulta aldiari ekingo, ustezko kaltetuekin edota eraginaren bat izan duen herritarrarekin.

Prozesu honetan alegazio eta kontsulta guztiak analizatu eta erantzungo ditugu, inbentarioan sartzeko bide bakoitzaren motiboa arrazoituz.

Hitz egiteko prest dauden guztiekin eztabaida sortzen den kasuetan bat etortzean saiatuko gara lehenengo fase honetan.

Jakina, azken erabakiaren zentzua Udal korporazioak ebatziko du, gure aholku eta adituen dokumentua izango dituelarik.

Helegiteak ebatzi eta komunikatutakoan dokumentuaren **Behin - betiko onarpenari** ekiten zaio. Udal batzaren aurrean, udal idazkariak sinatutako aktarekin Udalaren Ondasun Publikoaren Inbentarioan sartuko dira prozesuan ebatzitako bideak.

Erabaki honen aurrean, herritarrak “Contencioso-Administrativo” delako errekurtsua baliatzea izango du.

Kontratuan agertzen den denboralditik kanpo eman daitezkeen arazo juridiko guztiak ez dira gure zerbitzuan ezta aurrekontuan sartu. Haatik, gure gomendioa da Inbentarioaren egileak jakinarazi eta batera ekitea, erreklamazio administratibo edo judizialen aurrean, bide publikoaren defentsari.

Auzietan emaniko negoziazioek emaitza bezala permuta edo trukea balute, hauen tramitazioa, behin prozesua amaitu delarik egingo da eta ez da kontratu eta aurrekontu honetan sartzen.

Permuta hauek “Dominio Público” delakoaren desafektazioa eta afektazioaren espedienteak izan behar dituzte, gaur eguneko eta proposatutako bide berrien trazak, altxaketa topografikoa eta parteek aurkeztu lezaketen beste edozein dokumentazio ere bai.

Denboralditik kanpo aurkeztutako alegazioak ez dira kontratu honetan ezta aurrekontuan sartzen. Ulertzen dugu denboraldi hau behar diren alegazio edo kontsulta aurkezteko nahiko zabala dela. Eta denboraldi honetan aurkeztu ez duenak denbora pasa dadin nahi duela eta arazo hauen inguruan sortzen den nahasketa baliatzeko izango dela.

Horregatik, Udalarari ere bultzatzen diogu bere eskuetan dauden tresna guztiak martxan jartzeko, esposizioko programa auzokide guztiei hel dakien.

Behin protokolo hau bukatuta, aprobatuta egongo da Domeinu Publikoko Ondareen Inbentario ofiziala, bideei dagokien atalean, zehazki.

Inbentario honetan, arrazoi desberdinengatik, gehitu ez den bideak, ez du agertzen ez delako, bere izapide publiko eta onartua galtzen.

Diputazioko zerbitzu juridikoetan eginiko kontsultak direla medio, baieztatzen dugu derrigorra ez izan arren, berme handia ematen diola azaldutako prozedura gauzatzeak; horrela eginik, onargarriak lirakeelako Inbentarioan, urtero, Plenoak egin beharreko eguneratze eta zuzenketa oro.

Aipatutako zerbitzu juridikoek bideen gaia horren korapilatsua dela jakinik, azaldutako prozeduraren gardentasuna eta zehaztasuna gomendatzen dute.